

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 18/2020 Foru Dekretua, ekainaren 9koa. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua, onesten dituen Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumen esparruan ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak

Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumeneko eremuan ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak.

Araudi horren 3.3. artikuluan, onuradunek bete beharreko betekizun orokorre bidezkoan, zehaztu zen ezingo direla onuradun izan Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren aurrekontuan dirulaguntza izendunak dituzten pertsona fisiko edo juridikoak edo haiekin lotutako beste elkarte batzuk, baldin eta haien helburua dirulaguntzaren xedearekin bat badator.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eginkizunetako bat da laguntza ematea txikizkako saltokiei eta autonomoei. Laguntza hori emateko, hainbat laguntza deialdi antolatzen dira, norgehiagoka prozedura bidez, eta lankidetzak hitzarmenak ere izenpetzen dira.

Txikizkako saltokien eta autonomoen egungo egoera dela eta, azken urteotan, merkataritza hainbat elkartetan bildu dira. Elkarte horietako batzuetan gremio bereko merkataritza biltzen dira, eta beste batzuetan, aldiz, eremu berekoak. Elkarte horien helburua da geroz eta ugariagoak diren saltoki elektronikoei eta saltoki handiei aurre egitea.

Ahalik eta pertsona eta elkarte gehienek lor dezaten laguntza, beharrezkoa da aipatutako araudia aldatzea.

Aldaketa hori Urteko Araugintza Planean sartu zen, baina beharrezkoa da araudia aldatzea, aipatutako erroken erantzuteko beharra eta osasun egoeraren ondorioz ezarritako alarma egoera dela eta.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau:

XEDATZEN DUT

Bakarra. Aldatzea Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumeneko eremuan ematen diren dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren 3.3 apartatua. Honela idatzita geratuko da:

“3.3. Ez dira onuradunak izango pertsona fisiko eta juridiko hauek:

— Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluaren adierazitako arau hausteengatik zehapena jaso dutenak, bai eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren IV. titulua oinarri zehatu direnak eta Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak jasotzen dituen kasuetan daudenak ere.

– Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren aurrekontuan dirulaguntza nominatiboak dituztenak, baldin eta haien helburua dirulaguntzaren xedearekin bat badator”.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren
eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria

JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES